

96E/2020 Ebazpena, abenduaren 28koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailearena, Zaldiko Maldiko elkarteari dirulaguntza ordaintzea ebazten duena

Erreferentzia: espediente Kodea; **0011-1407-2020-000003**

KUDEAKETA UNITATEA: Herritarrekiko Harremanetarako Departamentua
Euskararen plangintzaren eta sustapenaren zerbitzua
Euskara Sustatzeko Atala
Tel.: 848 426054
Helbidea: Paulino Caballero kalea 13, 31002, Iruñea
Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

Espedientea

Espediente mota: euskararen erabilera edo presentzia soziala sustatzeko 2020ko jardueretarako laguntzen deialdia
Aplikatu beharreko arauak: 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, dirulaguntzei buruzkoa.
Titularra: ZALDIKO MALDIKO Kultur Elkartea
IFZ/IFK: G31250087

Herritarrekiko Harremanetarako kontseilariaren ekainaren 12ko 49E/2020 Foru Aginduaren bidez, "Euskararen erabilera edo presentzia soziala sustatzeko jardueretarako irabazi-asmorik gabeko elkarteentzako laguntzen deialdia" onartu zen.

Ondoren, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailearen irailaren 8ko 49E/2020 Ebazpenaren bidez, dirulaguntzaren deialdia ebatzi zen.

Elkarte onuradunek egiaztagiria aurkezteko epea amaituta, laguntzen behin betiko ordainketa proposatzen da, emandakoaren arabera.

Zerbitzuaren txosten baten arabera, Zaldiko Maldiko elkarteak 2020ko abenduaren 21ean aurkeztu zuen justifikaziorako beharrezko dokumentazioa. Aurkeztutako egiaztagiriaren arabera, 1.613 euro ordaindu behar dira.

Horregatik guztiagatik, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onartzen dituen azaroaren 6ko 303/2019 Foru Dekretuak emandako ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

1. Laguntzaren eta ordainketen zenbatekoa zehaztea, xehetasun hauen arabera:

IFZ:	IZENA	AURREKONTUAREN LERROA	URTEA	KOPURUA
G31250087	ZALDIKO MALDIKO KULTUR ELKARTEA	G/B30002/B3200/4819/334100 Irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeei euskara sustatzeko laguntzak 2020	2020	1.613,00

2. Ebazpen hau honako hauei helaraztea: Zaldiko Maldiko Elkarteari, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Herritarrekiko Harremanetako Departamentuan duen kontu-hartzailetzara, departamentu horretako Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Administrazio eta Ekonomia Kudeaketako Atalera, Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren



CSV: 99798CB357F3D40B

Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:

<https://administracionelectronica.navarra.es/validarCSV/default.aspx>

Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)

Fecha de emisión / Noiz emana: 2020-12-28 14:07:45

Zerbitzura, Euskara Sustatzeko Atalera eta Euskarabidearen Programen Bulegora, bai eta Datu Base Nazionalera ere, dagozkion ondorioetarako.

3. Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko helegitea aurkez dakioke Herritarrekiko Harremanetarako kontseilariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Iruñea, 2020ko abenduaren 28a.

EUSKARABIDEA- EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI
KUDEATZAILEA Mikel Arregi Pérez



CSV: **99798CB357F3D40B**

Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:

<https://administracionelectronica.navarra.es/validarCSV/default.aspx>

Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)

Fecha de emisión / Noiz emana: 2020-12-28 14:07:45